

## **Giro ezin hobean igaro dira aurtengo Santakruz jaiak**

- **Bost egun luzez ekimen eta ekitaldi mordoa antolatu ditu Jai batzordeak**
- **Udalak eskerrak eman nahi dizkio Jai batzordeari egin duen lan mardulagatik.**

**Andoainen, 24-05-07.-** Ekimenez eta ekitaldiz beteta egon diren bost egunen ostean, amaitu dira aurtengo Santakruz festak. Giro ezin hobean igaro dira egun guztiak, festa, armonia ona eta errespetua nagusi izan direnak. 100 ekimenetik gora burutu dira festetan zehar, oso jendetsuak gehienak ere; herriko bizilagunez gain, inguruko herrietako bisitariak ere etorri dira jaietz gozatzera. Udal gobernuaren ustez, hori guztia ez litzateke posible izango Jai batzordeak aurrera eraman duen lan eskergarik gabe; gau eta egun, nekaezin jardun dira gainerako herritarrek jaietz goza zezaten, eta alde horretatik, udal gobernu gisa, eskerrak ematea dagokigu.

Bestalde, jakina da herriko eragile ezberdinen artean eraso sexisten aurrean landu den protokoloaren ondorioz Gune Morea izan dela martxan jaiak iraun bitartean; bada, nabarmentzekoa da gune horretan ez dela aparteko intzidentziarik izan jaietan zehar.

Gogoratzekoa da, jai hauetan lehenbizikoz zarata eta argirik gabeko ordu eta egunak izan direla barraketan; Udalak balantze positiboa egiten du ekimenaz, eta hala jaso du horiekiko sentikor diren pertsona edo euren gertukoengatik. Aurrerantzean ere bide horretan lanean jarraituko duela adierazi nahi du Udalak.